


Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2022ko ekainean aurreko hilaren aldean

2021eko ekainarekin alderatuta, industria-prezioak % 28,2 igo dira

Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2022ko ekainean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Ekaineko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 28,2koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2022ko ekainean, prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak, aurreko hilaren aldean, hauek izan direla: *Koke-lantegiak eta petrolioaren finta* (% 11,9), *Janariaren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 2,3) eta *Erauzteko industriak* (% 1,8). Aitzitik, hil arteko prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 4,1eko jaitsiera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,7ko jaitsiera) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 1,3ko jaitsiera).

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketek, 2022ko maiatzaren aldean, joera ezberdinak erakusten dituzte: *Energiaren* prezioak % 4,7 igo dira, *Kontsumo-ondasunenak* oro har % 2,0, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 2,2ko eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 0,3ko hazkunderen eraginez. *Bitarteko ondasunen* prezioak, bestalde, egonkor mantendu dira (% 0,0) aurreko hilaren aldean, eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,8 jaitsi dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	138,3	1,1	28,2
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	113,1	1,8	8,3
Manufaktura-industria	133,7	1,9	23,1
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	120,4	2,3	12,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	102,4	-0,7	2,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	136,2	1,3	25,8
Kokeak eta petrolioaren fintzen	202,2	11,9	85,4
Industria kimikoa	149,6	1,3	25,8
Botiken fabrikazioa	120,2	-4,1	12,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	108,3	0,6	8,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	144,2	-1,3	26,5
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,0	0,1	4,4
Material eta ekipoen fabrikazioa	112,7	0,0	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	108,7	-0,3	3,9
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,6	0,6	1,0
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	111,6	0,3	3,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	167,2	-2,7	61,5
Ura	121,2	-0,5	9,1
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	118,9	2,0	10,9
Kontsumoondasun iraunkorrak	110,9	0,3	4,5
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	120,2	2,2	11,9
Ekipo-ondasunak	112,5	-0,8	5,0
Bitarteko ondasunak	133,4	0,0	21,3
Energia	189,5	4,7	76,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Uztailaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan, 2022ko ekainean 2021eko ekainaren aldean, prezio-hazkunderik handienak *Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea* (% 85,4), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 61,5) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 26,5) adarretan izan dira. Prezioetan igoera txikienak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Garraiorako materialen fabrikazioa* % 1,0 igotzen da; *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* % 2,5.

Helburu ekonomikoaren arabera ondare handietarako prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da guztientzat: *Energiaren* % 76,5 egin dute gora, *Bitarteko ondasunen* % 21,3

eta *Ekipo-ondasunenek* % 5,0. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 10,9ko hazkundera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 11,9 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 4,5 igo direlako.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, ekaineko indizea laginaren % 92,1eko estaldurarekin kalkulatu da; horretarako informazioa maiatzean eta ekainean jaso da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62